

NAFARROAKO GIZARTE EKINTZA ARLOAN PROIEKTUAK ETA JARDUERAK GARATZEN DITUZTEN IRABAZI ASMORIK GABEKO TALDE, KOLEKTIBO ETA ELKARTEEI DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK

1. HELBURUA

Deialdi honen helburua irabazi asmorik gabeko talde, kolektibo eta elkarteei dirulaguntzak emateko sistema ezartzea da.

Dirulaguntza horien helburua prebentzio, laguntza, aisialdi nahiz denbora libreko eta gizarteratzeko ekintzen bitartez herritarren gizarte ongizatea garatzeko programei laguntzea da.

2. BALDINTZAK

Dirulaguntzak jaso ahal izango dituzte honako baldintza hauek betetzen dituzten talde, kolektibo, elkarte eta erakundeak:

- Irabazi asmorik ez edukitzea.
- Prebentzio, laguntza, astialdi nahiz denbora libreko eta gizarteratzeko jarduerak egitea.
- Udal mugartean bertan herritarrentzako jarduerak egitea edo Iruñean edo eskualdean lanean arituta, beren jardueretan Zizur Nagusiko herritarrak sartzea.
- Nafarroako Gobemuaren Erakundearen Erregistroan, Zizur Nagusiko Elkarten Erregistroan edo Erakunde Erlijosoen Estatuko Erregistroan izena emanda egotea. Baldintza hau betetzen ez badute, epe jakin bat izango dute erregistroa formalizatzeko, eta aldeko erabakia hartzen bada laguntzak jaso ahal izango dituzte.
- Proiektuak bideratzeko egitura eta esperientzia edukitzea.

3. ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEA

Proiektuak behar bezala beteta, Zizur Nagusiko Udalaren Erregistro Orokorrean aurkeztuko dira, urte bakoitzeko Urtarriletan eta Otsailean zehar.

4. AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Aurkezturiko proiektuek honako datu hauek jaso beharko dituzte (Eranskinean eredu bat jaso dugu Eranskinean):

- Instantzia Orokorra (eskabide ofiziala).
- Erakunde eskatzailea.
- Egin nahi den Proiektuaren edo ekintzaren izenburua.
- Proiektuaren edo ekintzaren oinarriak.
- Proiektua gauzatuta lortu nahi diren helburuak.
- Egin nahi diren ekintza zehatzak.
- Proiektua gauzatzeko erabiliko den metodologia.
- Proiektua praktikan jartzeko giza baliabideak, baliabide materialak eta finantzabideak.
- Proiektua norentzat den.
- Non gauzatuko den.
- Proiektua osatzen duten ekintza guztien aurrekontu zehaztua. Atal hauek nahi eta nahiez jaso beharko dira:
 - Gastuen aurrekontua: ekintzen arabera.
 - Diru-sarreraren aurrekontua:
 - Erakundearen baliabide ekonomikoak.
 - Aipaturiko proiektua gauzatzeko beste erakunde batzuek eskatu beharreko dirulaguntzak eta

Erakunde horren izena.

- . Zizur Nagusiko Udalari eskatu zaion dirulaguntza.
- . Kontu zenbakia eta erakundearen IFK, dirulaguntza ematea erabakitzen bada transferentzia egiteko.
- . Bankuaren edo aurrezki kutxaren ziurtagiria, kontu korrontearen edo aurrezki libretaren zenbakia jasotzen duena.

5. ESKABIDEAK AZTERTZEA

Zizur Nagusiko Udalaren Herritarren Zerbitzuko Batzordeak aztertuko ditu eskabideak eta organo horrek egingo du dirulaguntzak emateko proposamena.

Batzorde horrek egokijotzen duen informazio osagarria aurkezteko eskatu ahal izango die GKEei, bai eta GKE bakoitzarekin elkarrizketa pertsonala ere.

Era berean, beharrezko diren Teknikariei hautaketa prozesuan parte hartzeko eskatu ahal izango die, aurkezturiko proiektuak aztertu eta baloratzen laguntzeko.

Ebaluazio Batzordeak alderdi hauek hartuko ditu kontuan:

- a) Proiektuaren gizarte interesa.
- b) Proiektuak gizarte ekintzan parte hartzen duten eremuekin eta herrialde onuradunarekin duen harremana.
- e) Egindako gizarte lanean gauzatuko diren ekintzen konplexutasun profesionala, ekintza integralak faboratzeko.
- d) Proiektuaren bideragarritasuna.
- e) Proiektua gauzatzeko eskabidea aurkeztu duen erakundearen baldintzak eta baliabide ekonomikoak.
- f) Gizarre intereseko proiektuaren jarraitutasuna.

6. ERABAKIA HARTZEA

Dirulaguntzak emateko erabakia Zizur Nagusiko Udalaren Gobernu Batzordeak hartuko du, ekainean, eta aurrekontuetan horretarako jasotako sailetik ordainduko da.

Zizur Nagusiko Udalak idatziz jakinaraziko du erabakia eta horretan dirulaguntza zenbatekoa den adieraziko du Dirulaguntza ematea erabakitzen bada, honela banatuko da: %75 dirulaguntza ematen den unean eta gainerako %25a urteko azken hilabeteetan, ekintza gauzatzen ari dela justifikatu ostean.

7. DIRULAGUNTZAK JUSTIFIKATZEA

Zizur Nagusiko Udalaren dirulaguntzak jasotzen dituzten talde, elkarte eta erakundeek konpromisoa hartuko dute Proiektua gauzatu dela frogatzeko azken memoria aurkezteko. Memoria horretan honako hauek jasoko dituzte:

- Egindako jarduerak.
- Balantze ekonomikoa, egiaztagiriekin.

Zizur Nagusia, 200leko urria